

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

NORTASUN-EREMUA

Azpi-Arloa: Jaiak

2025 urteko Sanrokeak XVII. Umeen Kartel Lehiaketaren oinarriak

BDNS(Identif.): 838179.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/838179>).

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko ekainaren 6an erabakiaren laburpena.

Erabaki horren bidez, 2025 urteko Sanrokeak XVII. Umeen Kartel Lehiaketaren oinarri arautzaileak onartzea.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Laudioko Udal honen web atarian (www.laudio.eus).

Erakunde esleitzaila: Laudioko Udala.

Onuradunak: lehiaketa honetan parte hartu ahal izango du 6 eta 13 urte bitarteko edozein adingabeek, Laudioko ikastetxeren batean matrikulatuta badago eta/edo Laudion erroldatuta badago.

Baldintzak eta aurkezteko modua: Egileak nahi adina kartel aurkeztu ahal izango du (lelo desberdinekin), betiere jatorrizkoak eta argitaratu gabeak badira eta ez badute saririk jaso lehenago. Teknika libre izango da.

Ez da onartuko irudi edota mezu sexista, xenofobo, arrazistak eta antzekoak dauzkan kartelik.

Laudioko Udalaren webgunean eskuragarri ipiniko den formularioa beteta aurkeztuko dira kartelak (www.laudio.eus). Nolanahi ere, elementu hauek eduki beharko ditu:

Aurkeztutako lanaren leloa.

Irudi fitxategia.

Lana aurkeztu duen pertsonaren identifikazio eta kontaktu datuak (datu horiek Laudio Udaleko idazkari nagusiak baino ez ditu ezagutuko, eta ezin izango ditu jakitera eman lehiaketaren emaitza ebatzi arte).

Izen-abizenak.

NAN/AIZ.

Jaiotze-data.

Helbide elektronikoa.

Harremanetan jartzeko telefono zenbakia.

Egilea ez den harremanetarako beste pertsona baten izen-abizenak, adingabeak direlako.

Markatzea oinarri hauetan zehazten diren betekizun guztiak betetzen direla adierazteko laukitxoak.

Kartelaren irudia daukan fitxategi batean aurkeztuko dira lanak, JPG formatuan (Neurriak: 820x1171 pixel. Bereizmena: 72 pixel hazbeteko. Gehienezko pisua: 2 MB). Ezin izango dira sinatu, eta ezin izango dute eduki aurkeztu duen pertsonaren identitatea ezagutzeko aukera ematen duen elementurik. Lanak formatu fisikoan aurkeztu ahal izango dira, din-A4 paperean, posizio bertikalean, baina lan horiek lehiaketan sartzeko, modu telematikoa eman beharko da izena lehiaketan. Formatu fisikoan aurkeztutako lanek lanaren leloa eraman beharko dute obraren atzealdean.

Irudiak DIN-A4 formatuan erakutsi beharko du kartela (bertikalean).

Hauetako kartelean nahitaez agertu behar diren testuak:

SANROKEAK 2023 - AUDIO JAIA

ABUZTUAK 15, 16, 17, 27, 28, 29, 30 eta 31

Epea: Ekainaren 17a arte parte hartu ahal da lehiaketan, egun hori barne.

Aurkeztutako obraren jabetza: aurkeztu diren obrak udalaren jabetza izango dira, udalak egokitzen jotzen duen erabilera eman ahal da eta nahi duen lekuan eta unean ipini ahal da. Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du esanbidez onartzen direla zehaztutako baldintza guztiak eta bete egingo direla.

Lehiaketaren oinarriak ALHAO, ZUIN aldizkarian, udal webgunean eta udalaren ohiko hedabideetan agertuko dira.

Sari bakarra emango da: 250,00 euroko balioa duen material didaktikoaren sorta bat, herriko saltokietan erosia.

Jakinartze modua: irabazlearen nortasuna ZUIN aldizkarian, udal webgunean eta udalaren ohiko hedabideetan argitaratuko da, eta Audio Udalaren Nortasuna Arlotik dei egingo zaio saria jasotzera joan dadin.

Ebazpena: Audio Udalak izendatuko du epaimahai teknikoa, eta hau izango da osatzailea:

Lehendakaria. Epaimahai teknikoko lehendakaria izango da (berdinketa gertatuz gero, kalitateko botoarekin), Audioko Udaleko jaietako zinegotzi ordezkaria.

Bokala: bokal gisa jardungo dute, boto banarekin, artearen, pinturaren, diseinu grafikoaren edota argazkigintzaren munduarekin erlazionatutako bi audioar, Hizkuntza Normalizazio eta Identitate Zerbitzuko teknikaria, Berdintasun Zerbitzuko teknikaria eta Audioko 2 pertsona, Sanrokeak 2025 lantaldeko kideak talde berak izendatuko.

Idazkaritza: Kultura, Kirol eta Jai zerbitzuko arduradunak idazkari lanak egingo ditu, hitza izanda, baina bozkatzeko aukera barik edo berak izendatutako zerbitzuko pertsona.

Kartel irabazlea aukeratzeko prozedura: Aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. fasea: epaimahai teknikoak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratzeko.

2. fasea: "botoen" fasea izeneko honetan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

Epaimahai teknikoaren botoak: 50 puntu eta 50 puntu herri-bozketarako.

Deialdi honen kariaz sor litezkeen auzi guztiak Audio Udaleko Nortasuna Arloaren eskumen eskusiboa dira.

Audio, 2025eko ekainaren 6a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ